

Ikonografia euskarri teknologiko berrietan

Karmele Perez Urraza

Euskal Herriko Unibertsitatea

Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila.
toppeurk@vg.ehu.es

Abstract

Nowadays, the mass media have to be considered as parallel schooling devices. Many changes that have taken place sociologically within the media have a bearing in the school work, and it is necessary for the schools themselves to discuss in depth these new developments. First, in order to examine the way reality is perceived; secondly, to analyze the characteristics of the emerging student; finally, to consider whether it is necessary to review school activities. New technologies are brought gradually into the learning process. Thus, we all are aware of the substantial contribution that iconography brings to the acquisition of knowledge. This is particularly true in the case of Basque cultural referents.

Laburpena

Gizarte-komunikabideak, gaur egun, eskola paralelotzat hartu behar dira. Komunikazioaren esparruan soziologikoki sortu diren hainbat aldatetek eskolaren zeregina kutsatu dute eta, egoera berri honek, eskolatik, bertatik, sakoneko gogoeta egitea eskatzen du. Batetik, errealitatearen somaketari buruz; bestetik, sortzen ari den ikasle berriaren ezaugarriaz, eta, azkenik, eskola-jarduerak berrikustearen beharrez. Euskarri teknologiko berriak gradualki sartzen ari dira irakaskuntzan eta ohartzen gara ikonografiak ezagutzaren eraikuntzan duen garrantziaz, are gehiago, Euskal Herriko erreferente kulturalak kontuan hartzekotan.

Hitz gakoak: Eskola, ikonografia, euskal erreferentea.

1. Gizarte komunikabideen eskola paraleloa

Audiobisualak (argazkiak, diaporamak, gardenkiak...) irakaskuntzan aspaldidanik sartuak daude. Irakaskuntzan ere, gizarte mailan gradualki suertatutako aldateten oihartzuna pairatu dugu, eta horregatik, egun, hastapeneko horiek teknologiaren berrikuntzarekin formatu berrietan azaltzen zaizkigu, etengabe. Horien artean, bideoa eta ordenadorea ditugu aro berrikoak. Bideoak pantaila multikolor bakar batetan aipaturiko horietako ikaselementu batzuk edo denak batu dituzte soinu eta irudi higikorra konbinatuz. Orainsu, berriz, azken berrikuntza teknologikoa multimedia formatuan pantailaratu zaigu, informatika eta ikus-entzunezkoaren erakarpenak uztartzen dituelarik, CD-ROMetan zein Interneten bidez.

Teknologia elektronikoa erabiltzen duten euskarri guzti horietatik, ez dago dudarik, irakaskuntzan erabilgarriena eta arrakastatsuena bideoa izan dugula. Bideoaren arrakasta bere ezaugarrietan datzalarik, gainera bada ere, horietatik aipagarrienak honako hauek lirateke: merkea, etxeetan ezaguna eta erabilia, liluragarria, gizartean hedatua, erabilerreza, irudimen-sortzaile, irudi-biltegi eta birsortzaile, egokiera anitzetako, eskuragarritasun handikoa, eta azkenik, telebista munduarekin hertsiki lotua. Telebistak, bideoaren lankidetzan, soziologikoki aldaketa nabarmenak ekarri ditu. Esan daiteke emisoreen ugartasunak eta euren hedatze-eremua geografikoki

hain zabal izateak honako gertaera biak ahalbideratu dituela:

Batetik, biztanleriaren kopuru handi batek informazio asko eta asko jaso dezakeela telebistaren bitartez, are gehiago, beste ezagupen eta informazio iturriekin konparatzen badugu, informazio gehiago, urrunagotik eta hobeagoa.

Bestetik, telebista bitartekari dela, mezu horiek ulertzeko esfortzu gutxi edo lan gutxi eskatzen zaiola ikus-entzulekoari.

Honen ondorioz, esan dezakegu audiobisualki alfabetaturik ez dagoen edonork mezu horien irakurketa ia maila deskriptiboan egiten duela, hobe esanda, ia ez duela maila hori gaintzen, hots, irakurketa hori maila kognitiboan egin beharrean maila emotiboan egiten duela soilik. Hala izanik, mezuaren eta hartzailearen artean sortzen den erlazioa hipnotikoa edo liluragarria da, eta egoera honek ez du ahalbideratzen edo ez du gordetzen gertaerak kritikoki aztertzearen komenigarria zaigun urruntasuna.

Bestalde, ez dezagun ahaztu behar, gizarte-komunikabideek ez dutela igorriko mezurik euren diskurtso propio berrindartzeko ez bada. Hasierako egoera horrela bada ere, sakoneko azterketa egin behar dugu, hain zuzen ere, honako hiru puntu hauek alderatuz:

1. Errealitatearen somaketari buruzkoa.
2. Sortzen ari den ikuslego berriaren ezaugarriaz.

3. Ikas-irakaskuntzaren jardueraren berrikustearen beharrianaz.

1.1. Errealitatearen somaketari buruzkoa.

Edozein errealitate jasotzerakoan, ohartzekoan, sumatzerakoan, pertzibitzerakoan, baldintzaturik gaude hedabideek txikitarik irakatsi diguten errealitateak igorritzeko eragatik. Errealitate berria ezagutzeko errealitate hurbilaren parametroetara egokitzen dugu ia beti, ezagunak zaizkigun aditasun, hautemate eta ezagupen parametroen bila. Beraz, gizarte-komunikabideek inguru sozial edo indibidualaz eskaintzen diguten pertzepzioa baldintzaturik agertzen da arrazoi ezberdinak direla medio. Horien artean, honoko hauexek ditugu (Aparici; Garcia-Matilla, 1989: 29):

a.- agertzen den objektuaz aldezturik dugun esperientziagatik

b.- mezua igorritzean berpiztu egiten zaizkigun fantasia eta frustrazioengatik

c.- pertsonarekiko, maila sozialarekiko edo giro horrekiko ikusleak egiten duen identifikazioagatik (normalean agertzen dena ez baita berari dagokiona)

d.- ikusleak duen frustrazio mailagatik

e.- mezua igorritzean egiten dugun identifikazio edo proiektzioagatik.

Honek guztiak aditzera ematen duenez, somaketa pertsonala bada ere, aldi berean, baldintzaturik dago objektu jakin batek sozialki duen esanahiaz edo hierarkiaz.

1.2. Sortzen ari den ikuslego berriaz.

Ikasle berri bat sortzen ari zaigu gure ikasgelatan, agian hobeto esana legoke, ikasle berria heltzen ari zaigula gure ikasgelatara. Ikasle horren profila horrelakoxea da, gutxi gorabehera: bitarteko elektronikoen bidez moldaturiko izakia, irudiaren munduan murgildua, beherehalakotasunak hezitua eta diskurtso ez-linealetan eta atalkatuetan informazioa jasotzeko ohitua eta trebatua (Aparici; Garcia-Matilla, 1987: 7).

Hedabideen gizarteratze hori haurtzarotik hasten da, etxeetatik bertatik eta, horren ondorioz, ikasle berri horien gustuetan aldaketa batzuk sumatzen ari dira, hain zuzen ere, pertzepziozko ohiturek eta kognitibo prozedurek ekoiztuak haurrak bitartekari teknologiko hauen artean bizi eta murgildurik aurkitzen direlako (Ferrés, 1994: 20), 1. taulan aditzera ematen dugunez:

Ezintasuna eta ukapena	Gaitasuna eta beharrianaz
Abstrakzioa	Konkrezioa
Gelditasuna	Dinamismoa
Isiltasuna	Soinuaren estimulatzailea
Analisia	Berehalakotasuna
Logika	Intuizioa
Analisia	Zentzazioa

1. Taula: Ikasle berriaren ezintasanak eta gaitasunak

Esan dezakegu, horregatik, eskola sozialki kompetentzia bizian dagoela familia, hedabide edota beste gizarteratze-erakundeekin. XIX. mendean, -Europako Estatuaren sorrerarekin batera-, eskolari legitimatu zitzaion ikasleen gizarteratze-lana burutzeko eskolaketa bitartez, baina, egun, ikusten dugu eskolak galdu duela ezagutza helarazteko zuen monopolioa. Eskolak intelektualki zuen ahalmena biziki galdu du bezero-multzo berberari erantzun behar diolako baina liluratzeko makinaria (ahotsa, arbela, koadernoak, akaso diskurtso berbera bidez grabaturik eta bidez emana) guztiz zaharkiturik gelditu zaionean. 2. taulan ikusten dugunez, ikastetxean eta mass-median lantzen ditugun diskurtsoen arteko desfasea gero eta handiagoa da, aurkako eremu bi hauen ezaugarri garrantzitsuenak aipatzekotan honoko hauek ditugularik (Ferrés, 1994: 9):

Ikastetxean	Mass-median (hedabideetan)
Kultura humanista	Kultura mosaiko
Ahozkoa nagusi	Ikusentzunezkoa nagusi
Abstrakzioa	Konkrezioa
Analisia	Berehalakotasuna
Logika	Zentzazioak, dardadak
Sistematizazioa, egituraketa	Dispersioa, kaosa edo anabasa
Lerrotasuna	Lekutasuna
Pertsonalizatzeko joera baina	Liluragarri baina
liluragaitz	despersonalizatzeko arriskuak

2. Taula: Diskurtsoen arteko konparaketa

1.3. Ikas-irakaskuntzaren jarduerak aztertze beharrianaz.

Ikasle eta irakasle, ikastetxe eta gizarteraren arteko desfase hori gainditu ahal izateko ikastetxeetako jarduerak zeharo aldatu behar dira. Irakasleei begira lan hori ez da erreza. Berrikuntza teknologiko hauen aurrean hiru muga (hiru beldur) gainditu behar dituzte oraindik, eskolatik bertatik:

1. Muga soziala: korporatibismoaren izenean beldur dira kontrol intelektuala eskolaz kanpoko beste gizaileen eskutara pasatuko ote den, beraien esparru propioa erabat lapurtuz.

2. Erakunde mailako muga: beldur dira ez ote den galduko Eskolak ezagutza helarazteko eta pertsonak gizarteratzeko duen monopolioaren legitimitatea, hain zuzen ere, Estatuak emaniko monopolioa hezkuntza sistema bitartekari dela eta.

3. Muga profesionala: Beldur hau bi ikuspegitatik alderatu daiteke: akademikoki, eta laboralki. Alde batetik, esan ohi da gaur egun irakaskuntzan ari den irakasleria beste era batera hezitua izan dela. Hori dela eta, normalki, irakasle horiek ziurrago sentitzen dira irakasts-molde horietan edo antzerakoetan murgiltzen direnean. Batzutan, eguneroko praktikak frogatu dielako erak horiek baliagarriak direla, neurri baten behintzat besteetan, oro har, "irakasten da erakutsitako moduan", hau da, behin eta berriro erabiliz ondoen menperatzen diren erak (ondoen dakizkitenak baitira). Beste alde batetik, laboral arazoa aipatu behar da. Irakasleak beldur dira ez ote den gertatuko enpresatan makinak sartzean sortu den errekonbertsio berbera (lanpostu sobera, langabezia...)

Onartu beharra dago, beraz, Teknologia Berriak gizartearen erabiltzen diren tresnak eta kode arrunt bihurtu direla aspaldidanik, bai etxeetan bai gizarte arlo gehienetan eta, ikastetxeak aurrerapen teknologiko horien eraginpean daudenez, bitarteko horiek ikastetxeetako egunekotasunean erabiltzeak irakaskuntzaren kalitatea ekar dezake, jardueraren diskurtsoa aldatzera baitarama eta ikas-irakasterak aldatzera ere.

Egia da, LOGSE Legearen diskurtsoa plazaratu zenean, ahozgorailuz behin eta berriro gogoratu zitzaigula teknologia berriek hezkuntza prozesuan integraturik daudelarik, era eta une egokitan erabiliak diren neurrian, eskola-hezkuntzako egintza areagotu dezaketela, irakaskuntza-ikaskuntza jarduera dinamizatu eta ikasgelako lan-giro bultzatu (OCD, 1992: 92). Hala pentsatzen dut nik ere, baina ez dut uste nahikoa denik. Teknologia Berrien integratze hori benetakoa izan dadin neurriak eta helburuak ikuspegi sakon, komun, orokor eta osotasunean hartutako eztabaidatik sortu behar da, bestela bitarteko horiek erabiliko dira baina ez dira inoiz integratuko ikastetxearen bizimoduan.

Oinarrizko Curriculum Diseinuan bereziki agertzen da Teknologia Berriek ez dutela kontutan hartu behar eduki horien formalizazioa curriculum-arlo jakin batean, eta erabili beharreko materialetaz horrelako baldintzak bete beharko litzuketela aipatzen ditu (OCD, 1992: 92):

- kalitate teknikoa eta pedagogikoa izatea
- lortu nahi den ikaskuntzarako egokia izatea
- beste baliabide batzuekin baliatuz, murriztu nahi diren denborak eskatzen dituen zailtasuna gainditzea
- erabilera erraz eta bizkorrekoa izatea.

Ikusten denez, Teknologia Berriak ikasleengan zentratu behar dira, eta ez eurek duten izaeran soilik. Era horretan erabili ezker baliagarriagoak zaizkigu ikasleari begira:

- ikaslearen parte hartzea eta ekimen sortzailea bultzatzeko.
- ikaslearen esperientzien eremua hedatzeko.
- ikaskuntza motibatuzeko.
- jarrera imitagarri eta sortzaileak lantzeko eta garatzeko.
- norberaren esperientziatik (eginez erabiliz) ezagutza eraikituzeko
- ikasleek euren izaera, baita beraien ingurua eta urruneko beste pertsonak hobeto ezagutzeko.

Derrigorrezko Hezkuntzatik hasita Lanbide Heziketaraino etorkizunari begira prestatu behar ditugu gure ikasleak esan ohi da, hala ere, helburu hori betetzea premiazko zeregina izan arren, Hezkuntza Sistema eta bere Legedia beharizan hori helburu propiotzat hartzeko eta gauzatzeko makinaria motelak direla erakutsi digute sarri. Horrexegatik, esan daiteke, gaur egun ere, Hezkuntza Sistema dela medio eskaintzen dugun prestakuntzak iraganeko beharriaz erantzuten diela, bertan dugun etorkizunari baino. Mutur aurrean jarri zaigun etorkizun horretan, ez dago dudarik, herrien irabazi soziala eta ekonomikoa informazioaren alorretik etorriko dela (garapen gutxiko herrietan ere garatuen teknologiaren menpean egongo baitira, beraien produktuen erosle eta erabiltzaile nagusiak izango baitira), eta, horrexegatik, txikitandik alor honetan hasitako heziketak guztiz eraginkorra eta beharrezkoa egingo zaie garapen pertsonal, profesional eta kulturalari begira etorkizuna diren belaunaldi berriei.

2. Urruneko irudien lilugarritasuna

Baina, irudien somaketan -lehen aipaturiko arrazoiak direla medio- baldintza horiek ez dira nahikoak gehiago zehazten ez baditugu. Beharrezkoa bada ikasleriaren aditasuna lortzea, material atsegina eta erakargarria erabili beharko genuke, horrelako hiru premisetatik abiatuz (Aparici; Garcia-Matilla 1989: 36):

- somaketan ikusten denaz ikasten bada, ondo diseinaturiko materialekin eskainiko dizkiegun esperientziak irakaskuntzaren hobekuntza ekarriko dute.
- somaketa horiek esanguratsuak izan daitezten ikuslearen testuinguru fisiko eta sozialari loturik egon beharko lirakeke.
- material audiobisualak egiterakoan ala merkatuan dagoena aukeratzeko, bideoa zein multimedia gure kasurako, irakasleak somaketaren legeak kontuan izan beharko ditu, eta, era berean, ohitu beharko litzateke beraiek

identifikatzen ikusten dituen pelikuletan, iragarkitan, etabarretan.

Gaur egungo teknologietara hurbiltzeko asmoz, ikastetxeetan zabaltzen eta erabiltzen diren bideo zein multimedia gehienetan produktu estandarrek agertzen dira. Euskal Herriko testuinguru partikularra alboratuta dago zientzia edo eduki unibertsalaren izenean, edota komunikazio-monopolioen interesen izenean, bitartekari hauen berezko izaera kolonizatzailea areagotuz.

Ba dirudi, bideoz zein multimediaz ailegatzen zaigun hainbat produktu, unibertsaltasunaren izenean partikularitasuna eta kultura herritarra alboraturik edo bigarren maila batetan geratzen dela, beraien bidez lantzen dugun jakintza-arloko curriculum hori erabat destestuinguraturik agertzen zaigula. Kontutan edukirik, kultura (Azurmendi, 1975: 428) gauza propioa dela -bestela ez da- eta, unibertsaltasuna (Santamaria, 1977: 68) bi modutara uler daitekeela, batetik, kultura orokorra bezala, eta bestetik, kultura herritarra bezala, teknika eta zientzia, -gure kasuan irakaskuntzan lantzen diren edozein ezagutza- unibertsala den heinean, errealitate guztietatik edan beharko luke, partikularrek barne daudelarik, bestela ez litzateke izango ez zientzia, ezta unibertsala ere. Bestalde, herri bakoitza unibertsalitera ailegatzen bada beren historiak eta ohiturek markatzen dizkioten urratsetatik, komuna bizi izan den euskal esperientzia hori bertaratu eta lekutu beharko litzateke euskarri teknologiko berrien bitartez lantzen den curriculumean ere.

Esanagatik, beldur gara, Teknologia Berrien ezarpenak dakartzan lilurak eta hizkuntz arrotzak ez duten utziko berriro eskola arrotzen eskuetan, galtzeko zorian, Bonifazio Echegaray-k (1935) aspaldidanik salatu zuenez. Ikuspuntu honetatik begiratuta, irudiek haurrengan sor dezaketen kalterik handiena da igortzen duten mezua errealitate imitagarri bakartzat hartzea. Horrela, suertatzen denean, urruneko egoerekin eta pertsonaiekin erabat identifikatzen dira haurrak, beraien historia eta testuinguru propioa galduz doazen neurrian.

Bestalde, irudi horiek askotan irudi estereotipatuak izaten dira, era ezkutuan edo agerian ideologia bat islatzen dutenak. Errealitatearen ikuspuntu bakar gisa agertze horrek, produkzioa kontrolatzen duen talde boteretsuaren ikuspegia islatzen digu eta eskaini egiten dizkigun ereduak kategorizazio kontzeptual bati dagozkionak baino ez dira. Irudi horiek, horrela sortzeak ez ditu kontuan hartzen edozein gizarte-egituratan agertzen diren beste errealitate eta egoera batzuk (hala nola ekonomikoak, zein sozialak, politikoak, generoak, arrazak...). Gizarte-komunikabideak direla medio, estereotipo horiek gure pentsaera homogeneizatu egiten dute, eta kanpotiko patrioi edo eredu arrotz horiek jasotzen ditugun neurrian gure historiatic, gure pentsamoldetik at gelditzen gara, urrundu egiten gara guztiz, iritziak, adierazpenak, keinuak eta errealitatea ulertzeko erak uniformatzen baitzaizkigu. Hala ere, ikusmolde horiek eraikuntza simple eta arruntak izaten dira, baina funtzio bikoitza

jokatzen dute gizakien eraikuntza soziala moldeatzean: batetik, indartu egiten dituzte sistema horrek sorturiko parametroak eta, bestetik, giza-talde desberdinen jokaerak eta adierazpenak homogeneizatu edo berdindu egiten dituzte.

Horregatik, azpimarratu nahi dugu ideologiak lotura hertsia daukala kontzeptuen sorkuntzarekin, hain zuzen ere, honako bi arrazoiengatik:

a.- pentsatzeko kategoria logikoak era bakarrean aurkezten dituztelako

b.- errealitatearen jasokuntza horiek prozedura kognitiboen bitartez gertatzen direlako.

Laburbilduz, esan dezakegu, beraz, *ezagutzak*, hau da, munduari buruzko ikuspegi horrek *kontzeptuak* baldintzatuko ditu, eta era horretara, bai *jokaerak*, bai *jarrerak* baldintzaturik eta gidaturik agertuko zaizkigu.

Guzti honegatik, gaur egun eraikuntza sozial eta politikoan hedabideek duten garrantzia inork ez du zalantzan jartzen. Hedabideek, ezagutza <ezagutzen dena, eta ezagutzera eman edo isildu egiten dena> milaka pertsoneri bide bakarreko mezu berbera erabiliz igortzeko ahalmena dute ezaugarri nagusi. Zentzu honetan, Apple-ren teorizazioarekin bat eginik, ezagutza eraikuntza soziala da, interes ekonomikoetara makurturik eta boteretsuen ideologiapean sortua, hain zuzen. Ikuspuntu hau partziala izanik, normarekin identifikatzen da eta norma horri ezagutza unibertsalaren kategoria ematen zaio. Era honetara agertzen dela, zaila gertatzen zaigu bereiztea neutrala ez denik, zeren eta Torres-ek (1993: 20) esaten duenez “ez dago eduki-hautaketarik eta ikaskuntza-irakaskuntza estrategia neutralik eurak sortzen diren gizarte-egiturarekiko”. Arrazoi hau dela eta, hedabideak boterezale bihurtzen dira; eta gehienetan, gizakien giza-orientatzaile eta ezagutza-eraikitzaile modura funtzionatzen dute gure gizartean, hedabideen funtzio hori areagotuz monopolio txiki edo handietan kontzentratzen diren heinean. Komunikabideetako enpresek, gizartean izan dezaketen botere eta ahalmen ekonomikoa eta izaera merkatal horri begira, eskema desitxuratzailak eta kontsumitzaileak igortzea dute helburu nagusi, abiadura azkarreko feedback modura ideologikoki eta ekonomikoki errentagarritasun handiagoa ekar diezaietelakoan.

3. Eskolaren zeregina

Testuliburuek ikasgeletan duten tokia eta funtzioa ezeztatu gabe badirudi epe laburrean ikasleria, nahitaez, bitartekari teknologiko puntenak erabiltzera beharturik egongo dela. Dagoeneko etxeetan piztu bizian sartu direla ikusi dugu. Hurrengo pausoa eskolan emango dela ikusiko dugu. Sartze-prozesu honetan bi arrazoi nagusitzen direla ikusten dugu. Batetik, irakasleria, orain edo gerotxoago, ohartu beharko da haurrek etxetik oso ezaguna dakarten esparru hori zehazki landu beharra dagoela, eta bestetik, argitaletxeei onura ekonomikoa ekar diezaikeen bezero potentziala haurra

bera delako. Multimedia horiek, bideoak eskaintzen duenari aurre egingo diote, hain zuzen ere, honi beren ezaugarri nagusitan gainditu diotelako, erabilgarritasunean eta ikusgarritasunean, batik bat. Bideoa eta telebista ikasleen interesetatik hurbil dauden moduan, euskarri berri hauek ere gazteen gogoekin bat datoz: informazioa erabiliko dute era biziago, atseginago, eta entretenigarriagoan.

Baina, aipatu dugu bideoa zein ordenadorearen multimedia bitartekari teknologiko modura erabiltzerakoan ez garea murgiltzen eremu aseptiko edo neutral batetan. Horregatik, ikastetxeetan erabiltzekotan elkarren artean eraginpe dinamiko hertsian dauden hiru partaideak, ikasleria, irakasleria, eta hezkuntza-komunitatea kontutan izan beharko ditugu. Gure ikasleengan tresneria hauek erabiliz eta mintzaira propio erakutsiz gaitasun kritikoa garatzea nahi badugu, informazio hartzaile gisa eta mezu igorle posible modura, irakasleriari dagokionez, maila berean behintzat, oinarrizko prestakuntza eta formakuntza eskatu beharko geniokeela uste dut. Bitartekari hauen erabilera bere egunerokoan uztartu behar ba du, kasu batzutan bitarkari dela, beste batzutan helburu, irakasleak berak erabaki beharko luke erabilera horren nolakoa, noizkoa, zertarakoa, eta zergatia. Beren curriculumearen gestioile bihurtu behar zaigu, hots, helburu jakin batzuk lortzea xede duen proiektu baten partaide eraginkor. Honek, lehenik eta behin, bere jarduerak finkatzera eta aztertzerakoan daramakio, maila pertsonalean zein ikastetxe mailan, Escudero-ren (1995: 401) hurrengo aipuak dakarrenez: "*Y esto es así porque, a menos que lo que se persiga sea una mera adición, instalación o aplicación de las nuevas tecnologías sobre el sistema escolar -planteamiento a todas luces cuestionable, (Tucker, 1986)- es imperioso no perder de vista que lo educativo requiere ser legitimado ideológicamente, fundamentado en una determinada toma de posición sobre la naturaleza del conocimiento y la cultura que debe seleccionar y organizar la escuela, así como sobre nuestros conocimientos relativos a cómo desarrollan y construyen el conocimiento los alumnos, y qué papel juegan en este proceso los profesores y los centros escolares al utilizar ciertos medios didácticos*".

Beraz, uste dugu, aurrerantzean euskarri teknologiko berri horiek ikasgeletako ikaskuntz-irakaskuntza jarduera batzuk erabat aldatuko dituztela eta, kognitiboki, informazioaren jasokuntzan, sakoneko aldaketak suertatuko direla. Ikastetxeetan irakatsitako prozedurak normalean nahiko linealak izan dira, hots, edozein idatzizko testu baten hasiera eta amaiera ondo finkaturik agertzen zen eta testu bera irakurtzerakoan prozedura berbera jarraitzen genuen edukiaren esanahia ondo jaso ahal izateko. Testu horiek parte-hartze mailan itxiak edo bukatuak ziren eta edukia ulertzeko linealitate hori jarraitu behar zen. Euskarri berri hauekin, ordea, buruak naturalki jokatzeko duen moduan funtzionatuko du informazioa eskuratzeko, hots, ideien elkarketa librea eginez eta ez arrazoinamendu linealari jarraituz. Beste modu batera esana, informazio hori emango digute edo eskainiko digute gure adimenak ideia-

elkarketa hori egingo lukeen tokian edo burutik pasatuko zitzaion unean, hiperlotura baten bidez informazioa eskainiz. Horregatik material hauek ahalmen handiko material didaktiko bihurtuko zaizkigu. Hezkuntzarako material gisa diseinaturik dagoen heinean batzutan material osagarri modura erabiliko da -informazio zehatz bat jasotzeko- baina beste batzutan aprendizaiaren tresnatzat erabili beharko genuke -bere hizkuntz eta kode propio eta guztiz-. Horretarako euskarri bera erabiliz, aprendizaiaren uneak antolatu beharko dira gelako beste tresna batzuk menperatzeko antolatzen diren moduko ekitaldiak burutuz, hala nola, arkatzen erabilerako, hiztegiak, atlasak edo naturagidatan informazioa jasotzeko. Arrazoi horiek direla medio, komenigarria litzateke euskarri horietan bai sartzeko, biltzeko eta baita informazio guztia jasotzeko euskara erabiltzea. Are gehiago diogu: gai orokor eta unibertsalak agertzekotan Euskal Herriko perspektiba erabili beharko litzatekeela uste dugu, behintzat, euskarri horiek bertan, bertatik eta bertakoentzat sortuak edo eginak diren kasuetan.

Horregatik, eskolaren curriculumean ikonografiaren lanketak toki berezia izan beharko luke. Batetik, bereiztuko genuke Irudiaren Pedagogia, eta, bestetik, Irudiaren bidezko Pedagogia. Lehenengoan, irudiaren kodeen ezagupenaz aritu ginateke, mezuak ulertzeko eta berriak sortzeko; bigarrenan, berriz, aprendizaiaren aurrera eramateko irudien erabilera oinarrituko ginateke, neurri handi baten, behintzat. Ikuspegiak biak osagarriak dira, eta ikastetxeetan landu beharrekoak biak. Irakasleak bi esparru horietan murgilarazteko, ikastetxeetan hainbat aldaketa egin beharko dira, informazio-gizarte honetan inoiz baino beharrezkoagoa baita gizaki aske eta kritikoa izatea, eta irakaskuntzan ari garenok ikasleak gizaki aske eta kritiko bilakatzeko izan behar dugu helburu.

Arrazoi berberetatik diogu, irakasleak, eta oro har ikastetxeko gainontzeko partaideek badutela zer esan ikasmaterial hauen aukeraketan eta erabileran. Arestian esan dugunez, eurak benetako gestioile izan behar badira, premiazkoa da irakasleria horren ikus-entzuek gainera oinarrizko alfabetakuntza, formakuntza eta prestakuntza bermatzea.

4. Aipamenak

- Aparici, R.; García-Matilla, A. (1987). *Imagen, video y educación*, Madrid: Paideia. Fondo de Cultura Económica.
- (1989). *Lectura de imágenes*, Madrid: Ediciones de la Torre.
- Apple, M. (1993). El libro de texto y la política cultural. *Revista de Educación*, 301, 109-126 orr.
- Bautista García-Vera, A. (1994). *Las nuevas tecnologías en la capacitación docente*, Madrid: Aprendizaje-Visor.
- Bourdieu, P. (1985). Sistemas de enseñanza y sistemas de pensamiento, in: Gimeno, J.; Pérez Gomez, A. *La enseñanza: su teoría y su práctica*, Madrid: Akal.

- Echegaray, B (1935). Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco, in: Askoren Artean. *Lucha de Idiomas en Euzkadi y en Europa*, Donostia: Euskaltzaleak, 55-86 orr.
- Escudero, J. M. (1995). La integración de las nuevas tecnologías en el curriculum y el sistema escolar, in: Rodríguez Dieguez, J. L.; Saenz Barrio, O. (Direcc.): *Tecnología educativa. Nuevas tecnologías aplicadas a la educación*, Alcoy: Marfil.
- Eusko Jaurlaritza (1992). *OCD (Oinarritzko Curriculum Diseinua). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Etaparako Sarrera. Zehar Lerroak*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Ferrés I Prats, J (1994). *La publicidad, modelo para la enseñanza*, Madrid: Akal.
- Hornilla, Tx (1994). *Técnicas etnográficas de investigación en educación: Teoría de la evaluación*. (Apuntes para uso exclusivo de los alumnos de Doctorado. Curso 1994-95), UPV-EHU.
- Torres Santomé, J. (1993). Los silencios en la selección del curriculum in ADARRA -Pedagogi Erakundea- *XII. Jornadas de Enseñantes con gitanos*, Bilbo: ADARRA.
- Williams, R (1976). Base and Superstructure in Marxist Cultural Theory, in: Dale, R.; Esland, E.; MacDonald, M. *Schooling and Capitalism: A sociological reader*, Londres.